

**GURASOAREN ARDURAPEKO AITORPENA EMANTZIPATU GABEKO ADINGABEAK UDAL ERROLDAN INSKRIBATU EDO HORIEN ETXEBIZITZA ALDAKETA EGITEKO**

Ize-abizenak	NAN / AIZ (1)

**Erroldatze helbidea**

Nire seme-alaba adingabeak erroldan inskribatu edo etxebizitza aldaketa egitearen ondorioetarako, honekin batera doan errolda orrian jasota dagoenaren arabera,

Izen-abizenak	NAN / AIZ (1)

**NIRE ARDURAPEAN AITORTZEN DUT**

- Goian aipatutako adingabeen zaintza dudala nire ardurapean
- Beharrezko legezko gaitasuna dudala erroldan inskribatu edo etxebizitza aldaketa egiteko
- Ez nagoela sartuta Kode Zibilaren 103.1ª c) (2), edo 158.3º c) (3) artikuluetan aurreikusitako inolako kasutan.

Era berean, jakinaren ganean nago aitorten honen edukien edo berarekin batera doan datu edo dokumentuen zehaztasunik ezak, faltsutasunak edo omisioak eginez gero erantzukizun penal, zibil edo administratiboak izan ahal izango dira. Era berean, egiaztatzen bada inskribatutako adingabeak ez direla etxebizitzan bizi, baja espedientea hasiko da inskripzio desegokiagatik, edo hala badagokio erroldan etxebizitza aldaketagatik, bidezkoak izan litezkeen gainerako erantzukizunen kalterik gabe.

AITORTZEN DU sinatzaileak, bere ardurapean, adierazi dituen datuak egiazkoak, zehatzak, osoak eta eguneratuak direla. DATUEN BABESA. Datu pertsonalak babestearen inguruan indarrean dauden arauak jarraiki, hau adierazten dizugu: inprimaki honetan jasotako datuak egiaztatzen edo osatu ahal izango dira beste administrazio publiko batzuei kontsulta eginda. Datuok Udalak tratatuko ditu bere eskuduntzen arabera eginkizunak eta zerbitzuak aurrera eramateko. Udalak zure datuak legearen arabera tratatuko ditu, beharrezko segurtasun neurriak hartuz eta hirugarrenei lagapenak legeak aurreikusitako kasuetan bakarrik burutuz. Informazio gehiagorako kontsultatu gure pribatasun politika: <https://uzt.gipuzkoa.eus/home.do?De=EU06712216>. Era berean, jakinarazten dizugu datuak atzitu, zuzendu, ezereztu, beraren aurka agertu, tratamendua mugatu eta datuen eramangarritasunari buruz dagozkizun eskubideak baliatzeko aukera duzula, idatziz, telematikoki, aurrez aurre edo posta arruntaz Udalera zuzenduz; Herriko Plaza z/g 20100 Errenteria. Azkenik, beste pertsona fisiko batzuen datuak helarazten baldin badituzu, pertsona horiei aurreko guztiaren berri eman beharko diezu.

Udal informazioa jaso nahi dut: e-posta, SMS, etb.

Errenterian,

Sinatua

**(1)** NAN/AIZ zenbakirik izan ezean, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 16.2 f) artikulua nortasuna egiaztatzeko jasotzen dituen dokumenturen bat duela jasoko da.

**(2)** Kode Zibilaren 103.1<sup>a</sup>. c) artikulua: Behin demanda onartu eta gero, eta ezkontideek egin eta epaileak onetsitako akordiorik izan ezean, epaileak hurrengo neurriak hartuko ditu, ezkontideek esanbeharrekoa entzunez:

1. ... Ezkontideetatik edozeinek edo hirugarrenek adingabea berekin eramango dutelako arriskua dagoenean, beharrezkoak diren neurriak hartu ahal izango dira, eta, bereziki, hurrengoak:

c) Aurretiaz epailearen baimena behar izatea, adingabearen egoitza lekuz aldatzeko.

**(3)** Kode Zibilaren 158.3<sup>o</sup>. c) artikulua: Epaileak, ofizioz edo semeak nahiz alabak berak, edozein ahaidek edo Fiskaltzak hala eskaturik, hartuko ditu:

3<sup>o</sup>. Gurasoetatik edozeinek edo gainontzekoek adingabea berekin eraman dezaten saihesteko beharrezkoak diren neurriak, eta, bereziki, hurrengoak:

c) Aurretiaz epailearen baimena behar izatea, adingabearen egoitza lekuz aldatzeko.